

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

75

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 5ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2019ko urriaren 2an emandako Aginduan finkatutako dirulaguntzak esleitzen dituen.

Nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan eta uhin bidezko irratietan) eta internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak emateko modua arautuz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2019ko urriaren 2an emandako Aginduak finkatutakoari jarraituz (2019ko urriaren 25eko EHAA, 204. zk.) eta, aldi berean, Balorazio-batzordeak egindako proposamena gogoan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Goian adierazitako aginduan finkatutako baldintzetakoren bat bete ez dituzten egitasmoak bazterrean uztea (I. eranskina).

2. artikulua.— Goian adierazitako aginduan finkatutako baldintzak bete dituzten egitasmoak diruz laguntzea (II. eranskina).

3. artikulua.— Interesdunei ebazpen honen berri ematea.

4. artikulua.— Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, herritar orok jakin dezan eta ebazpenak jakinarazpen ondorioak izan ditzan. Hala ere, argitalpena ez da oztopo izango beste mota bateko jakinarazpena egiteko. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat, 39/2015 Legearen 41.7 artikulua ezarritakoari jarraituz.

5. artikulua.— Laguntza-eskatzaileraren bat hartutako ebazpenarekin ados ez badago eta errekurtsioa jarri nahi badu, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko aukera izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 5a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MIREN DOBARAN URRUTIA.

I. ERANSKINA

DEIALDIAK FINKATUTAKO BALDINTZETAKO BAT EZ BETETZEAGATIK BAZTERREAN
UTZITAKO EGITASMOAK

A1 multzoa: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkariak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Zioa
Diario El Correo, SA	Zurekin papera	003-EG1-2019	Ez ditu gutxienekoak betetzen (Agindua, 7. artikulua, 2.2.b puntua)

B multzoa: internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Zioa
Indarweb XXI, SL.	Agenciadenoticias.es	001-EG3-2019	Ez ditu gutxienekoak betetzen (Agindua, 7. artikulua, 2.2.b puntua)

II. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK

A1 multzoa: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkariak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2019 (% 65)	2020 (% 35)
Baigorri Argitaletxea, SA	Gara	001-EG1-2019	197.042,00	128.077,30	68.964,70
Editorial Iparraguirre, SA	Deia	004-EG1-2019	181.508,00	117.980,20	63.527,80
Sociedad Vascongada de Publicaciones, SA	El Diario Vasco	005-EG1-2019	103.248,00	67.111,20	36.136,80
Urgull 2004, SA	NDG euskara sustapena papera	002-EG1-2019	68.202,00	44.331,30	23.870,70
		GUZTIRA	550.000,00	357.500,00	192.500,00

A2 multzoa: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkarien edizio digitalak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2019 (% 65)	2020 (% 35)
Diario El Correo, SA	Zurekin web	002-EG2-2019	71.849,00	46.701,85	25.147,15
Editorial Iparraguirre, SA	Deia	005-EG2-2019	49.265,00	32.022,25	17.242,75
Sociedad Vascongada de Publicaciones, SA	Diariovasco.com	003-EG2-2019	67.361,00	43.784,65	23.576,35
Tai Gabe Digitala SL	Naiz-Gara	004-EG2-2019	149.600,00	97.240,00	52.360,00
Urgull 2004, SA	NDG euskara sustapena sarean	001-EG2-2019	36.925,00	24.001,25	12.923,75
		GUZTIRA	375.000,00	243.750,00	131.250,00

B multzoa: internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2019 (% 65)	2020 (% 35)
Europa Press Delegaciones SA	Servicio de noticias en euskera de Europa Press	002-EG3-2019	25.000,00	16.250,00	8.750,00
		GUZTIRA	25.000,00	16.250,00	8.750,00

C multzoa: osorik euskaraz emititzen ez duten uhin bidezko irratiak.

Eskatzailea	Egitasmoa	Espediente zk.	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2019 (% 65)	2020 (% 35)
Radio Segura, SA	Segura Irratia	001-EG4-2019	50.000,00	32.500,00	17.500,00
		GUZTIRA	50.000,00	32.500,00	17.500,00

2020ko urtarilaren 10a, ostirala

Multzoa	Dirulaguntzak	Ordainketak	
		2019 (% 65)	2020 (% 35)
A1 multzoa	550.000,00	357.500,00	192.500,00
A2 multzoa	375.000,00	243.750,00	131.250,00
B multzoa	25.000,00	16.250,00	8.750,00
C multzoa	50.000,00	32.500,00	17.500,00
GUZTIRA	1.000.000,00	650.000,00	350.000,00